



## Ormaiztegui Udala

### 2020ko urtarrilaren 17ko jendaurreko bilera HAPOaren 1.go eta 2. Aldaketa puntualei buruzkoa

Ormaiztegin, 2020ko urtarrilaren 17an, eguerdiko 12:00etan, Udaletxe honetako Bilkura Areto Nagusian, herritarrentzat bilera egiten da, Ormaiztegui HAPOan (Hirigintza Antolatzeko Plan Orokorra) 1.go eta 2. Aldaketa puntualak egiteko dokumentuei buruzko informazioa emateko. Lehenengoan izaera desberdineko hainbat aldaketa proposatzen ditu Udalak eta bigarrean Irizar, S.Coop. enpresak "Beheko Soroa" eremuari dagokion bat.

Informazio bilerara honako jn./and. hauek bertaratzen dira.

- Juan LOBATO AMADO (zinegotzia).
- Nikolas BARANDIARAN CONTRERAS (1.go aldaketa puntualaren dokumentuaren egilea)
- Maite AGIRREBEÑA GARITANO (2. aldaketa puntualaren dokumentuaren egilea)
- Gaizka PEROSTERENA ARREGUI (udal arkitekto aholkularia)

Idazkaria:

- M. Arantzazu AMUNDARAIN ARANA And.

Herritarrak:

- Lau herritar

Segidan Juan Lobato Amadok hasiera ematen dio bilerari eta Maite Agirrebeñari hitza ematen dio Ormaiztegui HAPOaren 2. aldaketaren nondik norakoen berri eman dezan. Adierazpenak eman ondoren eta bertaratuen galderarik ez dagoenez, Maite Agirrebeñak bere eginkizuna amaitutzat emanik bilera uzten du.

Ondoren, Nikolas Barandiaran Contrerasek hitza hartzen du eta HAPOaren 1.go aldaketaren berri ematen du puntuz puntu. Gaizka Perosterena Arreguirekin batera, bertaratutakoek egindako galdera eta kontsultei erantzun ondoren, 13:25 ordu direnean, bilkura amaitutzat eman da. Eta nik, horren akta egin eta ziurtatzen dut bertan esandakoa leial jasotzen duela.

Ormaiztegin, 2020ko urtarrilaren 17an.

Sin. M. Arantzazu Amundarain Arana

